

Eskola-lanen III. Lehiaketa

GURE eskubideak

III Concurso de trabajos escolares

NUESTROS derechos

Aurten, hirugarren aldiz, Arartekoak giza eskubideei buruzko eskola-lanen lehiaketa iragarri du.

Nork har dezake parte?

EAEko ikastetxeetako ikasle edo ikasle-talde guztiek, Lehen Hezkuntzakoek nahiz Bigarren Hezkuntzakoek.

Nolako lanak izango dira?

Azken hiru ikasturteotan (2005-2006, 2006-2007, 2007-2008) ikasgelan, kurtsoan, zikloan, etapan edo ikastetxean giza eskubideei buruz egin den lan sistematikoaren programazioa eta materialak (erabilitakoak edo sortutakoak), orain arteko balorazio edo ebaluazioarekin batera.

Euskaraz edo gaztelaniaz eta edita daitezkeen euskarri batean (papera, euskarri digitala...; ikasleek egindako lanen erakusgarri bat gutxienez erantsi behar zaio).

Zeri buruz?

Giza eskubideekin edo, zehazkiago, haurren eskubideekin zerikusia duen edozeri buruz. Eskubide zehatz bat landu daiteke (adibidez, parte hartzeko eskubidea), edo funtsezko balioaren bat (esaterako, ezberdintasuna onartzea eta errespetua).

Noiz eta non aurkeztu?

Noiz: 2008ko martxoaren 20a baino lehenago (2. hiruhilekoaren bukaeran)

Non: Arartekoaren helbidean
Ararteko (eskola-lanen lehiaketa)
Prado, 9
01005 Vitoria-Gasteiz

Lanak nola balioztatuko dira?

Arartekoak irakaskuntzarekin eta giza eskubideekin lotura duten pertsona batzuen batzordea izendatuko du. Batzorde horrek neurtuko du lanak zenbateraino egokitzen diren deialdi honetara, beren originaltasuna eta kalitatea, baita argitaratzeko, jarduera egokiak ezagutarazteko eta eskoletan erabiltzeko dituzten aukerak ere.

Sariak eta parte hartu izanaren ziurtagiria

Hasieran behintzat, bi sari emango dira, bat kategorian edo maila bakoitzeko: Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Saria ikastetxearentzat izango da (ordenagailu eramangarri bat, edo material informatikoa, proiektzio-kanoi bat edo lankidetzeta-jolasen sorta bat). Saritzen diren lanetan parte hartutako ikasleei (gehienez, ziklo bateko) egun bateko bidaia edo ibilaldia eskainiko zaie. Ikastetxeek parte hartu izanaren ziurtagiri bat jasoko dute. Sariak arartekoak emango ditu, ekitaldi publiko batean.

Lanak argitaratzea

Lanak balioztatuko dituen batzordeak proposamen bat egin ahal izango du, interesgarriak iruditzen zaizkionak argitaratzeko. Argitalpen hori gure erkidegoko ikastetxe guztietara igorriko da, jarduera egokiak ezagutarazteko modutzat.

Lan bakoitzean jarri behar diren datuak

Ikastetxearen izena, helbidea, telefonoa eta harremanetarako pertsonaren izen-abizenak.
Parte-hartzaileen izen-abizenak eta beren ardurak.

Zalantzarik izanez gero

Jarri harremanetan Ararteko erakundearekin:
945 13 51 18 edo
arartekoa@ararteko.net

Animatu parte hartzera!

El Ararteko convoca este año el III Concurso de trabajos escolares sobre derechos humanos.

Qui n puede participar

Personas-equipos de cualquiera de los centros escolares de la CAPV, tanto de Educación Primaria como de Educación Secundaria.

Qu tipo de trabajos

Programación y materiales (utilizados o producidos) en el trabajo sistemático sobre derechos humanos, durante alguno de los tres últimos cursos (2005-2006; 2006-2007; 2007-2008), a nivel de aula, curso, ciclo, etapa o centro, con su valoración o evaluación hasta la fecha.

En euskera o castellano y un soporte editable (papel, digital...; incluyendo al menos una muestra de los trabajos realizados por los/las alumnos/as).

Sobre qu temas

Cualquiera ligado a los derechos humanos o, más específicamente, a los derechos de la infancia. Puede centrarse en un determinado derecho (ej. derecho a la participación) o valor esencial (ej. respeto y aceptación de la diferencia).

Cu ndo y d nde presentarlos

Cuándo: antes del 20 de marzo de 2008 (final del 2º trimestre)

Dónde: enviarlos a:
Ararteko (concurso de trabajos escolares)
Prado, 9
01005 Vitoria-Gasteiz

C mo se valorar n los trabajos

El Ararteko nombrará una comisión de personas ligadas a la enseñanza y a los derechos humanos, que valorará la adecuación a esta convocatoria, originalidad y calidad de los trabajos, así como sus posibilidades de publicación y difusión de buenas prácticas y aprovechamiento didáctico.

Premios y certificados de participaci n

Se concederán, en principio, dos premios, uno por cada "categoría" o etapa: Primaria y Secundaria. El premio será para el centro y consistirá en un ordenador portátil, o material informático, o un cañón de proyección o un lote de juegos cooperativos. A los alumnos y las alumnas participantes en los trabajos premiados (como máximo, de un ciclo) se les ofrecerá un viaje o excursión de un día. Los centros recibirán un certificado de participación. Los premios serán entregados por el ararteko en un acto público.

Publicaci n de los trabajos

La comisión que valore los trabajos podrá proponer la publicación de aquellos que considere de mayor interés. Esta publicación se enviará a todos los centros escolares de nuestra Comunidad, como una forma de difusión de buenas prácticas.

Datos a incluir en cada trabajo

Centro educativo: nombre, dirección, teléfono del centro y persona de contacto.
Nombre, apellidos y responsabilidades de cada participante.

En caso de duda

Contactar con la institución del Ararteko:
945 13 51 18 ó
arartekoa@ararteko.net

Animaos a participar!

